

## ALERTAK. Istripu errepikatuak: ALDAMIOETATIK ERORIAK



**Aldamioetatik eroritako pertsonen istripuek ondorio LARRIAK edo HILKORRAK izaten dituzte gehienetan. Neurri handi batean, horiek muntatzean edo desmuntatzean gertatzen dira, edo hasierako konfigurazioa aldatzean.**



### IDENTIFIKATUTAKO KAUSA NAGUSIAK

- **EZ EGIAZTATZEA** aldamia **BEHAR BEZALA** dagoela, erabili aurretik.
- Enpresa muntatzailearen **BAIMENIK eta IKUSKAPENIK GABE ALDATZEA**. Lanen bat egiteko elementuren bat **KENTZEA** eta gerora **EZ JARTZEA**.
- Aldamia **ZAINTZA eta KONTROLIK GABE ERABILTZEA**.
- Aldamiotik kanpo egitea lanak, beharrezko **NBEak** desegoki erabilita edo bermerik ez duten edo egokiak ez diren puntuetan ainguratuta.
- **GURPILDUN** Aldamioak lekualdatzea, langileak gainean daudela.
- Arriskuen ebaluazioan (A.E.), obraren kudeaketa prebentiboko dokumentuan (O.K.P.D.) edo segurtasun eta osasun planean (S.O.P.) aurreikusitako prebentzio-neurriak **EZ BETETZEA**.
- **PRESTAKUNTZA/INFORMAZIOA** eskasa edo desegokia lanak egiteko.



### PREBENTZIO-NEURRIAK

- Lanaldi hasieran, premien arabera, aldamioaren egoeraren **EGIAZTAPENAK EGITEA**, lanaldiaren hasieran, kontrata erabiltzailea aldatu ondoren, jarduerarik gabeko aldi luzeen ondoren, egoera hori **ETIKETEN** bidez **IDENTIFIKATZEA**.
- Ez **ALDATZEA** aldamia enpresa muntatzailearen **BAIMENIK eta GAINBEGIRATZERIK** gabe. Unean uneko lanak egiteko elementuak kentzen badira, berehala konpontzea. Langileek aldamia behar bezala erabiltzen dutela **ZAINTZEA eta KONTROLATZEA**.
- Beharrezko **NBEak** behar bezala erabiltzea, **2 M BAINO GEHIAGOKO** garaieran lan puntualak egiteko, egin beharreko lanak direla eta, babes kolektibotik kanpo edo elementuren bat kendu behar denean.
- **INOIZ EZ** mugitzea **GURPILDUN** aldamia, gainean langileak daudela.
- A.E., O.K.P.D. edo S.O.P. jasotako **PREBENTZIO-NEURRIAK BETETZEA**.
- Ezinbestekoa da egin beharreko zereginetarako **PRESTAKUNTZA/INFORMAZIO** egokia ematea.

